

## **BAZKIDE GARRANTZITSUAK**

Aurretik aipatu bezala, gure enpresak bertako zerbitzu bat ekoiztuko du. Horretarako jasoko ditugun gorotzak bertakoak izango dira.

Baliagarria izango litzateke eskualde bakoitzeko baserritarrekin aliantza bat egitea. Gorotzak lortuko ditugu, eta gure enpresaren helburu nagusi bat kontutan izango dugu; bertako produktua erabiltzea. Aliantza burutzeko, inguruko baserritarren zerrenda bat egingo dugu eta banaka-banaka ezagutuko ditugu eta zenbat gorotz sortzen dituzten aztertuko dugu, ditugun bezeroen arabera izan dadin jasotzen ditugun gorotz kopurua. Gorotzen truke, ongarririk emango diegu eta guk bertako, kalitatezko eta gertuko lehengaia lortuko dugu, elektrizitatea alegia, ahalik eta preziorik lehiakorrena lortzen dugun bitartean. Gorotzak lortzeagatik ez dugu ez kobratu, ez ordainduko. Dohainik egingo genuke bilketa eta trukean ongarririk doan emango genieke baita ere.

Ur araztaileen hondakinak, hondakin biologikoak diren heinean, energia iturri ere erabil genezake. Hortaz, bigarren aliantza bat proposatzen dugu. Jaso, eta araztaile plantak gure energia garbiak mugiaraz zezakeen. Beraz, ur araztatzaileen soberakinak gure enpresak erabiliko lituzke.

Hasiera bateko ideiak, gorotzak jasotzea eta garraiatzea, izan ditzakeen gastu altuak ikusita, SASIETA hondakin kudeaketan dabilen enpresarekin lankidetzan jardutea izango zen aukerarik onena. SASIETAren eginkizuna; gorotzak jasotzea izango litzateke gure inguruko baserri eta landagune desberdinetan. Aldi berean, gorotz horiek jasotzeaz eta gordetzeaz arduratuko litzateke. Aliantza honetan bi aldeak irabazten atera behar dugulako eta zerbait jaso behar dutelako trukean; guk sortutako energiaz baliatzeko aukera izango lukete beraien instalakuntzetan erabiltzeko. Enpresak aurrera egin ahala, gure helburua gutxinaka aliantza honekin bukatzea izango litzateke.

SASIETArekin amankomunean lan egiteak, merkaturatzerako orduan erraztasunak emango lizkiguke, SASIETAk bertako merkaturatze izena eta garrantzia dituelako.

(Beste eskualdeetan baserritarrak parte hartu nahi badute beraien inguruko sasieta pareko batekin aliantza)

<https://goierri.hitza.eus/2019/11/12/hondakinak-biltzeko-kamioi-elektriko-berria-aurkeztu-du-sasietak/>

